



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## PRENTSA-OHARRA

# BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEK GARRAIO ETA MUGIKORTASUN JASANGARRIAREN FORU SAILEKO AURREKONTUA ONARTU DABE BATZORDEAN

- **Bizkaiko 2021eko Aurrekontuen proiektuaren zuzenketa-eske parzialen eztabaidea astelehen honetan amaituko da.**

*(Bilbon, 2021eko zezeilaren 12an).* Aurreko lau jardunaldietan gertatu dan moduan, Foru Gobernua eusten daben talde biek, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak, atzera bota ditue Ogasun eta Finantzetako Batzordean eztabaidatu diran oposizinoko taldeen zuzenketa-eske guztiak. EH Bilduk, Elkarrekin Bizkaiak eta Talde Berezia-PPBk 28 zuzenketa-eske parzial aurkeztu ebezan Garraio eta Mugikortasun Iraunkorreko Sailaren kontuen aurrean.

Osoko bilkurak berretsi ezkerro, Miguel Ángel Gómez Viarrek zuzentzen dauen sailak 167,4 milioi euroko aurrekontua izango dau aurten –Gizarte Ekintzaren eta Azpiegituren ostean Aldunditik gehien gastauko dauen hirugarrena izango da–, eta gaur goizean onartu diran sailaren 6 programen artean banatuko da, ezelango aldaketa barik. Bilkura berean, Aparkabisa foru soziedadearentzat erreserbautako zenbatekoa onartu da.

Foru Gobernuaren lana eusten daben taldeek ez ditue onartu EH Bilduk eta Elkarrekin Bizkaiak goi-kargudunen soldatea murrizteko behin eta barriro egin dituen ahaleginak, ezta talde moreak Lantik eta Zugaztel soziedadeen partidak kentzeko eta erakunde horreek Herri Administrazioko sailean sartzeko erakutsitako asmoa be.

Garraio publikoari jagokonez, Batzarrek ez ditue onartu hainbat eskualdetan Bizkaibuseko lineen maiztasuna areagotzeko oposizinoak egindako zuzenketa-eske guztiak, eta gauza bera gertatu da Bizkaibuseko autobusetan kutsatzeak prebenitzeko neurriak ezarteko partida guztiakaz be. Elkarrekin Bizkaiak 2 milioi euroko partida sartu gura eban horretarako. Gobernua babesten daben taldeek uste dabe aurrekontuak, idatzita dagozan moduan, “nahikoak” dirala zerbitzuaren funtzionamentu egokia bermatzeko.

Talde moreak, EH Bilduren eta Talde Berezia-PPBren babesagaz, Uribe Kosta-Ezkerraldea, Lea Artibai, Ezkerraldea-Meatzaldea eta Mungialdea-Urdulizko Ospitalea lineetan zerbitzua indartzeko beharra defendidu dau.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Horrez gain, metroaren sarea luzatzeko planak be eztabaidatu dira. Ildo horretan, hainbat taldek Foru Gobernuak metroa luzatzeko planak azkartzea eskatu dabe. EH Bilduk, ETSra milioi bat euroko transferentzia egitea eskatu dau, metroa Errekalderra eta Galdakaora erroteko eraikuntza proiektuak arintzeko. Talde Bereziak 3 milioi euroko partida bikotxa eskatu dau aurton metroaren 4. eta 5. lineak eregiten hasteko, baina asmo horrek Elkarrekin Bizkaiaren babesa baino ez dau izan. Popularrek 600.000 euroko beste partida bat eskatu dabe Meatzaldea metroaren sareagaz lotzen dauen 6. linea bat aztertzen hasteko. “Pandemiaren erdian ez dauka zentzu handirik”, esan dau Raúl Mendez EH Bilduko ordezkariak, eta gitxiago alderdi horrek Meatzaldea zeharkatzen dauen aldiriko linea “hiltzen itzi” dauela kontuan izanda.

Kopuru ekonomiko txikiagoko beste gai batzuen artean, Bizkaiko Batzarrek atzera bota dabe Aparkabisaren aurrekontua murrizteko Talde Bereziak egin dauen proposamena, edo Bizkaibusen markesina eta panel informatibo gehiago instalatuko zenbatekoa handitzea. Gauza bera gertatu da garraio publikoan gazteentzat eta epe luzeko lanbakoentzat hilean 20 euroko bonoa jarteko eskariagaz. Beste alde batetik, Elkarrekin Bizkaiak bizikletentzako euskarriak eskatu ditu BIZKAIBUSen. Eta EH Bilduk Uribe Kostako eta Ezkerraldeko lineak “publifiketako” azterlan bat eta herritarren artean lurraldeko bidegorriak ezagutuarazoteko beste bat eskatu ditu.

## ZUZENKETA-ESKEEN EZTABIDEAREN AMAIEREA

**Astlehenean, zezeilaren 15ean**, amaituko da zuzenketa-eske parzialen eztabaidea, Ogasun eta Finantzetako Sailaren kontuakaz. Bertan 27 zuzenketa-eske bozkatuko dira, gehi Artikuluen testuaren aurrean aurkeztutako beste 26.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

## NOTA DE PRENSA

# **LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBAN EN COMISIÓN EL PRESUPUESTO DEL ÁREA FORAL DE TRANSPORTES Y MOVILIDAD SOSTENIBLE**

- **El debate de las enmiendas parciales al proyecto de Presupuestos de Bizkaia de 2021 concluirá este próximo lunes.**

*(Bilbao, a 12 de febrero de 2021).* Como ya sucediera en las cuatro jornadas anteriores, los dos grupos que sustentan al Gobierno foral, Nacionalistas Vascos y Socialistas vascos, han rechazado todas las enmiendas de los grupos de la oposición debatidas hoy en la Comisión de Hacienda y Finanzas. EH Bildu, Elkarrekin Bizkaia y el grupo Mixto PPB habían presentado un total de 28 enmiendas parciales a las cuentas del departamento foral de Transportes y Movilidad Sostenible.

De ratificarse por el pleno, el área que dirige Miguel Ángel Gómez Viar contará este año con un presupuesto de 167,4 millones de euros –el tercero de mayor gasto de la Diputación tras Acción Social e Infraestructuras- que se repartirá entre los 6 programas del departamento que han sido aprobados esta mañana sin ningún cambio. En la misma sesión se ha aprobado la cuantía reservada para la sociedad foral Aparkabisa.

Los grupos que sustentan la labor del Gobierno foral han rechazado las repetidas intenciones de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia por reducir el sueldo de los altos cargos o la pretensión del grupo morado por eliminar las partidas de Lantik y Zugaztel, para integrar estas entidades en el departamento de Administración Pública.

En materia de transporte público, la Cámara vizcaína ha rechazado todas las enmiendas de la oposición destinadas a incrementar las frecuencias de líneas de Bizkaibus en diferentes comarcas, así como partidas para implantar medidas de prevención de contagios en los autobuses de Bizkaibus. Elkarrekin Bizkaia quería incluir una partida de 2 millones de euros en este sentido. Los grupos que apoyan al Gobierno creen que los presupuestos, tal y como están redactados, son “suficientes” para garantizar un correcto funcionamiento del servicio.

A propuesta del grupo morado, y con el apoyo de EH Bildu y del grupo Mixto PPB, se ha defendido la necesidad de reforzar el servicio en las líneas de Uribe Kosta-Margen Izquierda, Lea Artibai, Ezkerraldea-Meatzaldea y entre Mungialdea y el hospital de Urduliz.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

Asimismo, los planes para ampliar la red de metro han sido también tema de debate. En este sentido, varios grupos han pedido que el Gobierno foral acelere los planes de expansión del suburbano. EH Bildu ha solicitado una transferencia de un millón de euros a ETS para agilizar los proyectos constructivos a Rekalde y Galdakao. El grupo Mixto ha ido más allá pidiendo una doble partida de 3 millones de euros para comenzar este año la construcción de las líneas 4 y 5 del metro, intención que ha contado solo con el apoyo de Elkarrekin Bizkaia. Los populares han pedido otra partida de 600.000 euros para iniciar los estudios de una línea 6 que llegue a comunicar Meatzaldea con la red del metro. “En mitad de la pandemia no tiene mucho sentido” ha dicho el representante de EH Bildu, Raúl Méndez, cuando esta formación además “ha dejado morir” la línea de Cercanías que atraviesa la Zona Minera.

Entre otros asuntos de menos montante económico, la Cámara vizcaína ha rechazado también la propuesta del grupo Mixto para reducir el presupuesto de Aparkabisa, o incrementar la cuantía para instalar más marquesinas y paneles informativos en el Bizkaibus, además de un bono mensual de 20 euros en el transporte público para jóvenes y parados de larga duración. Por su parte, Elkarrekin Bizkaia ha solicitado soportes para bicicletas en el Bizkaibus. Y EH Bildu un estudio para la “publicación” de las líneas de Uribe Kosta y Ezkerraldea y otra para dar a conocer entre la ciudadanía las vías ciclistas del territorio

#### FIN DEL DEBATE DE LAS ENMIENDAS

El **lunes 15**, el debate de las enmiendas parciales concluirá con las cuentas de Hacienda y Finanzas, en la que se votarán 27 enmiendas, más otras 26 al texto Articulado.